

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

HARANeko UDALA

2025eko zergak kobratzea

2025eko ekitaldiko landa eta hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren errolda eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarena onetsi direnez gero, jakinarazten da 2025eko abenduaren 26tik aurrera ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean.

I. Ordaintzeko epea.

A. Borondatezko epea: 2025eko abenduaren 26tik 2026ko otsailaren 26ra.

B. Betearazte aldia: 2025eko otsailaren 26tik aurrera. Betearazte aldiko errekarquak, premia-mendu murriztukoak nahiz arruntekoak, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauan (Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra) adierazitako epeetan ordaindu beharko dira.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A. Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontua aldatu ez badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenean udalean eskatu ahal izango dute.

III. Gomendioak.

Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpene-tarako helbide aldaketak, Haraneko udaletxean (Entzia etorbidea, 52, Alda) izapidetu beharko dira, astelehena eta ostirala bitartean, 8:00etatik 15:00etara.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Alda, 2025eko azaroaren 30a

Alkateordea

JOSE MIGUEL QUINTANA SAN VICENTE